

Cecilia García Gilarte



Kazetari anarkista

Udalerria: Tolosa (Gipuzkoa)

Jaiotze-data: 1915-12-20

Heriotza data: 1989-07-14

Lanbidea: Idazlea eta kazetaria

Cecilia García Gilarte gipuzkoar idazlea eta kazetaria izan zen. Hedabide desberdinetan kolaboratu zuen, nobelagilea, Espainiako gerra zibila bukatu ondoren Mexikon erbesteratu zen. Tolosan hil zen, 1989ko uztailaren 14an. Artikuluak Cecilia G. de Guilarte bezala izenpetzen zituen.

CNT sindikatuaren militante baten alaba, Ceciliak haurtzarotik izan zuen literaturarekiko zaletasuna. Gurasoak Burebakoak ziren eta Tolosara emigratu zuten bertako papeleran lan egiteko. Lau seme-alabak izan zituzten: Cecilia, nagusia, Ricardo, Felix eta Esther. Ceciliak Tolosan egin zituen lehenengo ikasketak. Hamaika urtekin Bartzelonako aldizkari batean bere lehenengo testua argitaratu zuen. Ondoren, Madrilgo CNTren aldizkarirako hasi zen idazten eta baita Kanariar Uharteetako **En Marcha** egunkarirako ere. 1935an Madrilera joan zen eta **Estampa** aldizkarian hasi lanean kolaboratzailebezala. Urte horietan Bartzelonan eta Donostian narrazio labur batzuk argitaratu zituen, esaterako **Rosa del rosal cortado** (1936). Gerraren hasieran Gilartetarrak Bilbora joan ziren. Egun horietan frankistek bere anaia Felix Irunen inguruan hil zuten. Ordurako idazleak bere senarra izango zen Amos Ruiz Girón ezagutzen zuen. Amos, Eibarreko udaltzainen burua izandakoa, Euskadiko Diziplina-Batailoiko buru izandakoa izan zen. Hilabete horietan gerra-erreportari bezala CNTrako artikulua idatzi zituen. 1937ko maiatzaren 2an ezkondu ziren Amos eta Cecilia. Urte horren irailean Cecilia Ribadesellatik La Rochellera eta handik Kataluniara joan zen. Bere senarrak Cuencan familia zuen eta hura joan zen haurdunaldia bertan izateko. Azkenik, alaba, Marina, Sabadell herrian jaio zen. 1939ko otsailan berriro ere muga igaro zuen Biarritzera joateko. Lapurditik Narbonara joan zen. Azkenik, 1940ko ekainaren 15an, bere familiarekin batera, "Cuba" itsasontzia hartu zuen, Mexikoko bidean.

Mexikon erbesteratua

Behin Mexikon berehala hasi zen hango aldizkarietan lanean: **Rumbon**, **El Hogar**. Epe laburrean, irratian kolaborazioak egiten hasi zen. Euskal erbesteratuen aldizkarietan ere idatzi zuen: **Euzko Deya**, **La Voz de los Vascos en México**, **Gernika**, **Tierra Vasca**, **Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos**... Bitartean narrazioak idazten jarraitzen zuen eta 1944an bere nobela ezagunena argitatu zuen: **Nació en España**. 1950an, familiarekin batera, Mexikoko iparraldera joan zen, Sonorara. Herri desberdinak ezagutu ondoren, azkenik Hermosillon gelditu ziren. Bertako bizitza kulturean aktiboki hartu zuen parte gure idazleak, bereziki Unibertsitatean non Arte eta Antzerkiaren Historiari buruzko klaseak eman zituen. 1958an bere liburu arrakastatsuen argitaratu zuen: **Sor Juana Inés de la Cruz**, **Claro en la selva**.

Berriro Euskal Herrian

1963an, arazo asko gainditu ondoren, Euskal Herrira itzuli zen, bere jaiotzezko Tolosara. Hemen ere laster hasi zen betiko dinamikarekin, idazten. Prentsan La Voz de España idatzi zuen; aldi berean, Mexikoko aldizkaritean jarraitu zuen idazten, Periódicos Healy enpresan kolaboratuz. 1968an Planeta sarian finalista izan zen baina nobela ez zioten argitaratu. 1969an Aguilas saria irabazi zuen. Urte horietan hemengo intelektual ezagunenekin izan zuen harremana: Jose Artexe, Antonio María Labaien, Miguel Pelai Orozko, Jose Maria Mendiola, Xabier Lopez Mendizabal... 1989ko uztailaren 14an Tolosan hil zen.

Iturria: [Wikipedia](#)

